

**GUTXITUTAKO HIZKUNTZAK GLOBALIZAZIOAREN
AURREAN: EUSKARAREN ERRONKAK ETA AUKERAK**

Begiratzan den ikuspuntutik begiratzan dela globalizazioaren izenburupean zibilizazio berria datorkigu. Ez da gehiegi esatea gure ohitura, bizimodu eta pentsatzeko moduen berregituraketa gertatzen ari dela. Globalizazioarekin batera hedatzen ari diren teknologia berriek, biztanlerian gertatzen ari diren gora-beherak, eta maila ekonomiko, politiko, kultural zein pentsaera eta baloreen baitan ematen ari diren berrantolaketek eragin nabarmena izango dute gizakion, bereziki mendebaldeko gizarteetan bizi garenon, eguneroko bizimoduetan.

Dena dela, ez dago globalizazioaren ondorioei buruzko adostasunik. Bereziki gutxiagotutako hizkuntzengan prozesu honek izango duen eraginari buruz galdetzen badugu, ikuspuntu kontrajarri nagusi birekin aurkitzen gara.

1. Globalizazioa urritutako hizkuntzen kaltegarri

Zenbaitentzat, globalizazioak, eta berarekin datozen teknologia eta ikus-entzunezko komunikabide berrien hedatzeak, bereziki interneten hedatzeak, pentsamendu bakarra, homogeneotasun kulturala eta, beraz, kultura txikien eta hizkuntza gutxiagotuen desagertzea ekarriko ditu (Virilio, 1997). Globalizazioa inperialismo ekonomiko, politiko eta kulturalak hartu duen forma berria denez, era guztietako aniztasunen aurka doa.

Ikus-entzunezko teknologia berrien mundu mailako hedapena eta hauen bidez igortzen diren eduki mediotikoak herrialde aberatsen eta, beraz, hizkuntza indartsuen, bereziki ingelesez hitz egiten duten herrialdeen, eskuetan daudenez nagusiki, eredu bakarreko pentsamendu, kultura eta hizkuntzak nagusituko dira (Verdu, 1996). Globalizazioak, beraz, joera bateratzaileak eta identitate kolektiboen desagertzeak bultzatuko ditu hizkuntza eta kultura aniztasuna desagerraraziz.

Bada, hizkuntza gutxi batzuk nagusituko dira munduan zehar. Izan ere, gaur egungo hizkuntza bizien kopurua 5.000 eta 6.000 bitartekoa dela uste da, baina horietako asko hil egingo dira hurrengo urteetan (Junyent 1993, Hale 1992, Krauss 1992). Bizpahiru belaunalditan munduan dagoen hizkuntza aniztasuna desagertu egingo da zenbait hizkuntza handien mesedean (gaztelera, errusiera eta ingelesa, kasu). Junyent-en (1999) hitzetan, *“Azkeneko bostebun urteetan, munduko hizkuntzen kopurua erdira jaitsi da. Décsyren estatistiken arabera, 1970etik 1985era bitartean, hizkuntz kopurua 4.500etik 2.700era jaitsi zen; beraz, 1.800 hizkuntza desagertu ziren 15 urtetan. Gaur egun, gutxi gorabehera 2.000 dira transmititzen ez diren hizkuntzak, eta joerak bere borretan jarraitzen badu, XXI. mendean gizateriaren hizkuntz ondarearen %90 desagertuko da”*.

2. Globalizazioa hizkuntza gutxiagotuen mesederako

Globalizazioarekiko jarrera honen aurrean, komunikaziorako teknologia berrien hedapena, bereziki Internet eta ikus-entzunezko komunikabideen hedapena, hizkuntza gutxiagotuak babesteko erabili ahal izango dela azpimarratzen dutenen ikuspuntua dugu; globalizazioaren ondorioak kultura eta gutxiagotutako hizkuntzen mesedetan erabili ahal izango dira.

M. Puig-ek, Kataluniako Telebista eta Irratiko Korporazioaren zuzendari nagusiak, Koldo Mitxelena Teknologia berriei eta kultura txikiei buruz eman zuen hitzaldian adierazi zuenez (Egunkaria 2000-04-01), Internet-en iraultzak kultura eta hizkuntza gutxituen alde jokatzen du.

Puigen iritziz, teknologia berrien garapenak hizkuntza gutxiak kaltetuko dituen susmoak ez daude frogatuak. Teknologia berriak kultura txikien lagunak dira, eta haien alde jokatzeko dute. Hiru datu aipatu zituen baieztapen hori oinarritzeko: Batetik, *kultur argitarapena merkeagoa da eta baita errazagoa ere. Sarean sartutako materiala mundu osora iristen da*. Bestetik, *itzulpen sistema automatikoak gero eta hobekiak dira, eta jada basi dira oso ondo funtzionatzen*. Azkenik, *abotsa irakurtzen duten programen garapena aipatu zuen*.

Honela, bada, gutxiagotutako hizkuntzei aukera handiak zabaltzen zaizkie teknologia berriekin. Itzulpen automatikoaren laguntzarekin batez ere, hizkuntzen arteko mugak inolako arazorik gabe gaindituko ahal izango dira, eta edozeinek ahal izango du nahi duen mezua nahi duenean plazaratu. Kultura eta hizkuntza aniztasuna eredu menperatzaile berberen mende gelditzeko joera txikiagotu egingo da, beraz.

Komunikabide handiak gutxi batzuen eskuetan gelditzeko arriskua badago ere, zerbait esateko edota erakusteko duenak bere mezua munduratzeko aukera ezin hobekiak izango ditu. Areago, muga politikoen gainetik irudi eta ahotsak bidaltzen dituzten komunikabide handiekin lehiatzeko aukerak izango ditu. Zentzu honetan, ez genuke ahaztu behar teknologia berrien hedatze eta merkatzearen ondorioz, herri komunikabideek (herri telebista eta irratiak...) inoiz baino gehiago ugaritu direla, Euskal Herrian zein beste leku batzuetan (Euskal Herrian euskaraz ari diren 5 herri-telebista daude, adibidez).

Aipatu, bestalde, Castells-en ustez (1996-1997) globalizazioak ez dituela identitate kolektiboak desagertuko. Izan ere, munduan gertatzen ari den geldiezineko prozesu bateratzailearen ondorio garrantzitsuena da, noraezeko egoera ekartzen digula gizabanakooi eta, horren aurkako erreakzio bezala, hurbilen ditugun gauzenganako itzulia egiten ari garela. Hau da, bizi garen gizartea gero eta konplexuagoa da, baina hori dena ulertzeko arazoak ditugu. Ondorioz, hurbiltasunerako itzulia egiten

ari gara; Castell-ek dioen bezala, ezagutzen ditugun eta neurri batean kontrola ditzakegun eremuetarako itzulia alegia, eta horrek berrindartu egiten du hurbileko taldeen (lagunak, familia, herri nortasuna, erlijioa...) eta tokian tokiko identitateen beharra. Kulturak estandarizatzeko joera orokorrek tribalizazio berriak eta hurbilean dugunarekiko atxikimendu handiagoak ekarriko dituzte (Maffesoli, 1997). Eta horrekin batera, baita herri komunikabide eta hizkuntza gutxiagotuekiko atxikimendua ere.

3. Euskararen alde sendo eta ahulak globalizazioaren aurrean

Globalizazioak, eta berarekin batera hedatuko diren ikus-entzunezko komunikabide eta teknologia berriek, (internet, telebista kateak...) erasan izugarria izango dute kultura eta hizkuntza txikiengan, eta, bada, baita euskal kultura eta euskararengan ere. Kontua da eragin honen alde baikorrak aprobetxatzeko eta txarrak, ahal den neurrian, saihesteko dauden aukerak ezagutu behar ditugula, martxan jarri beharreko estrategiak pentsatu eta hartu beharreko erabakiak hartzeko. Eta horretarako, euskararen eta euskal kulturaren inguruan garatu diren ikus-entzunezko komunikabide eta teknologia berrien alde sendo eta ahulak zeintzuk diren ezagutu behar ditugu. Izan ere, Unescoren babespean egiten ari garen Munduko Hizkuntzei Buruzko Txotenean ikusi dugun bezala, teknologiek, bereziki ikus-entzunezko komunikabideek, garrantzi handia dute hizkuntzen biziraupenean. Zehatzago esateko, ikerketa honetan ikusi dugunaren arabera, teknologiak eta, bereziki ikus-entzunezko komunikabideak gutxiagotutako hizkuntzen alde egiten dute. Hain zuzen ere, euren hizkuntzetan komunikabideak dituzten hizkuntza-elkarteek, bereziki telebista dutenek, era honetako komunikabiderik ez dituztenek baino gutxiago urritu dira. Era berean, komunikabideetan erabiltzen diren hizkuntzak, era honetako erabilpenik ez dutenak baino askoz gehiago transmititzen dira. Hitz gutxitan esateko, komunikabideak urritutako hizkuntzen alde jokatzen dute.

Honela, bada, gure ikuspuntua da gutxitutako hizkuntzek ikus-entzunezko teknologiekiko zabalik eta prestatuta egon behar direla globalizazioarekin datorkien hizkuntza homogeneousunari behar bezala aurre egin eta etorkizunean ere bizirauteko. Galdera da, nola dago euskara ikus-entzunezko teknologiei dagokionez? Nola dago prestatuta datorkigun hizkuntza homogeneousunari aurre egiteko? Zeintzuk dira ikus-entzunezko komunikabideei dagokionez euskarak dituen alde sendo eta ahulak?

Gure ustez euskarak baditu etorkizunean ere irauteko alde sendo ugari:

- Euskal Herrian asko ugaritu dira euskaraz aritzen diren herri irriati (50 bat inguru) eta telebistak (5 bat gutxi gorabehera). Gainera, hauek zein EITB-k berak ere asko ugaritu dute euren ikus-entzulegoa. Horrek, euskarazko ikus-entzunezkoek badutela etorkizuna pentsatzera eramaten gaitu (*Goenkale* bezalako euskarazko programak, adibidez, milioi erdi pertsonengana hurbiltzea lortu duela ez da ahantzi behar).

- Honekin batera, aipatzekoa da *Canal Vasco*, EITB-ren Satellite bidezko kanalak, Kontinente Amerikarreko herrialde guztietan euskarazko programak ikusteko aukera zabala eskaintzen duela. Euskal kultura eta euskara munduan barrena hedatzeko eta ezagutarazteko tresna honek, gainera, 9 hilabeteren buruan bi milioi etxetara ailegatzea lortu du, eta horrek etorkizun oparoa duela pentsatzera eramaten du (Egunkaria, 2001-2-8). Euskarak ez du inoiz mundura agertzeko hain leiho handirik izan.

- Euskara globalizazioari aurre egiteko prestaturik dagoenaren beste adibide garrantzitsua da, aurrerapen ugari egin direla euskararen sintaxia automatizatzen. Donostiako Informatika fakultateko Ixa taldeak (*Xuxen* zuzentzaile ortografikoa da taldearen lan ezagunena) itzulpen automatikoaren inguruan aurrerapen ugari egin ditu (Egunkaria 2000-7-26). Horrek euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzulpen automatikoak egiteko sistemak sortzea eta, ondorioz, euskarazko produktuen hedakuntza erraztuko ditu.

- *Internet*-eri dagokionez, kontuan izan behar da Euskal gaiei buruzko *Internet* atariak (Jalgi...) ugaritu direla eta Eusko Jaurlaritzak *Internet*-era konektatzeko bultzatu duen *Konekta Zaitetz* ekimenak mundurako ate ugari zabaltzen dizkiola euskarari, euskarazko web orrialdeak ugaritu daitezkeelako (ekimenaren lehen bi hiletan 10.500 ordenagailutik gora saldu eta konektatu dira *Internet*-era EAEn eta, oro har, EAE-ko etxeen %10 Internetera konektatua dago).

- Azkenik, aipatzekoa da euskal kultura eta euskara lehen ere gaztelania eta frantsesa bezalako hizkuntza handien ondoren bizitzen egon direla, eta, nolabait esateko, maila txikiagoko globalizazio prozesuei ohiturik daudela. Zentzu honetan, gure ustez globalizazioak ez du euskara desagertuko. Globalizazioaren aurkako defentsa mekanismo gisa herrialde txikien identitate nazional eta lokalak sendotzen doazen heinean, hauen hizkuntza eta kulturak ere sendotu egingo dira.

Datu hauek nolabaiteko baikortasunera eramaten bagaituzte ere, ez dute esan nahi euskal kultura eta euskara globalizazioari eta datorkigun iraultza teknologikoari aurre egiteko behar bezala prestatuta daudenik. Izan ere, euskarak eta euskal kulturak ahultasun asko dituzte:

- Euskal kulturaren inguruan dauden ikus-entzunezko komunikabide askok baliabide ahulegiak dituzte euskarari eta euskal kulturari behar bezalako indarra eta maila emateko. Besteak beste, euskaraz jarduten duten herri-telebista askok diru arazo larriak eta baliabide gutxi dituztelako.

- Bestalde, kontuan izan behar da zenbait herri-irradi eta telebista erdaraz hutsez ari direla Euskal Herrian. Aipagarria da Hegoaldeko lau hiriburuetakoko telebistak erdara hutsez aritzen direla eta, txarrago dena, ez dela aurreikusten hauek euskaratzeko plangintzarik.

- Euskarazko zineak ere hutsune nabarmenak ditu. Ekoizpenari dagokionez, oso film gutxi egiten dira euskaraz eta, bestalde, euskal zinegileek egiten dituzten (erdaraz, nos-

ki!) filmak kanpoko etxeek ekoiztuta daude ia gehienetan (Juanma Bajo Ulloaren *Airbag* edo Alex de la Iglesiaren *Perdita Durango* filmak joera horren adibide argiak dira). Are gehiago, era honetako produktu gehienetan ez da euskal sensibilitaterik edo euskal munduarekiko loturarik agertzen, ez gaietan ez adierazpen moduetan.

Filmen bikoizketa hartzen bada, hutsunea areagotu egiten da. Euskal Telebistaren inguruan hala-holako itzulpen industria sortu bada ere, honek ez du zine areto komertzialetan inolako eragirik izan. Euskal Herriko zenbait hiriburutan saiakera batzuk egin badira ere, gaur gaurkoz, oso gutxi dira euskarazko pelikulak ematen dituzten zine aretoak. EZA (Euskara Zinema Aretoetara) proiektuari pila bat ari zaio kostatzen aurrera ateratzea.

Euskal Zineari buruzko legedia egon badago ere (zerbait bada!), ez du behar bezalako zine industria sortzeko balio izan. Eta hau arazo larria da euskal kulturarentzat zein euskararentzat, zeren aisialdia toki itxietan pasatzeko joerak areagotzen ari diren mundu globalizatu honetan, zineak eta, oro har, zinearekin loturiko industriak garrantzi izugarria hartzeko bidean daude. Euskal kulturaren inguruan zine industria propio bat sortzen ez bada, euskal kultura eta euskara egoera ahula areagotu egingo da.

- Euskaraz aritzen diren ikus-entzunezkoetara hurbiltzen direnen kopuruak handitu badira ere, kopuru hauek ez dira nahikoak euskal kulturak egoera normalizatua duela esateko. Gehien erakartzen duen euskal komunikabidea ETB1 da, eta, hala ere, euskaldungoaren erdira ere ez da iristen.

- Bestalde, onartu egin behar da ikus-entzunezko euskal merkatua txikia izateaz gain, behar bezala egituratu gabe dagoela oraindik (Azpillaga, 2000). Euskal Herriko ikus-entzunez komunikabideen arteko harremanak urriak izateaz gain, plan orokorrik gabe ari dira.

- Nahiz eta Eusko Jaurlaritzak *Internet*-era konektatzeko bultzatu duen *Konekta Zaituz* ekimena guztiz baikorra izan, oraindik ez da gurea bezalako kultura eta hizkuntzarentzako

mundurako leiho honek izan ditzakeen garrantzi estrategikoari buruzko behar bezalako gogoetarik egin, eta, ondorioz, atzeraturik gaude gertatzen ari den iraultza teknologikoaren aurrean.

4. Zer gertatuko zaie globalizazioarekin euskara bezalako hizkuntza gutxiagotuei?

Datorrigun zibilizazio berriaren berezitasun eta ondorioei buruz gogoeta egiteko motiboak baditugu gutxiagotutako hizkuntzen egoera eta bilakaerarekin kezkatuta gaudenok. Izan ere, arrazoi asko dago pentsatzeko globalizazioak sortzen dituen indar eta sinergien itsasoan hizkuntza gutxiagotuek irauteko aukera gutxi dutela; batez ere, teknologia berriek hizkuntza gutxi batzuen gain-hartzea ahalbidetuko dutelako.

Dena dela, gure ikuspuntua da jarrera ezkorregietatik alde egin behar dugula. Ikus-entzunezko komunikabideen bitartez hizkuntza arrotzen presentzia ugarituko bada ere, ez dugu pentsatu behar hizkuntza gutxiago denak desagertuko direnik.

Zenbait arlotan hiztun gutxiko hizkuntzak homogeneotasun kulturalari aurre egiteko txikiegiak eta ahulegiak direla onartu behar badugu ere, globalizazioarekin aukera ugari ere agertzen zaizkie zenbait erabaki estrategiko hartzen badituzte; hau da, teknologia berriek eta ikus-entzunezko komunikabideek eskaintzen dituzten aukerak behar bezala erabiltzeko estrategiak martxan jartzen badituzte. Euskararen kasuan, gure ustez, nahitaezkoa da honako erabaki estrategiko hauek hartzea:

- Euskarazko ikus-entzunezko komunikabide askoren ahulezia kontuan hartuz, beharrezkoa da hauek indartuko dituen estrategia orokorra martxan jartzea. Areago, euskal kulturak teknologien eta ikus-entzunezko komunikabideei buruzko egitasmo orokorra eta propioa behar du. Zinema, telebista eta multimedia guztiak kontuan hartuko dituen interbentzio-plana bultzatu behar da. Plan hori orokorra eta euskal ikuspegia duena izan beharko da, eta ikus-entzunezkoen arloan parte hartzen duten guztiek jarraitu beharreko irizpideak zehaztuko ditu.

Plangintza hau telekomunikazioen esparru propioa eraikitzeko lehen pauso bezala planteatu beharko da; hau da, gaur egun dauzkagun azpiegitura, indar eta asmo guztiak kontuan hartuz Euskal Herritarrontzako komunikazio eremu propioa antolatzeko lehen pauso gisa.

- Maila txikiagoan, beharrezkoa da euskaraz aritzen diren ikus-entzunezko komunikabideen arteko harremanak sendotzea. Orain dela gutxi sortu den *Herri-Telebisten Federazioa*, aurrerapauso garrantzitsua bada ere, pauso gehiago eman beharra dago. Zentzu honetan, beharrezkoa da herri-telebistei laguntzeko estrategiak bideratzea. Eta horrek ETB1 eta herri-telebisten arteko elkarlana bultzatzea eskatzen du.

- Euskal kulturak eta euskarak prestaturik egon behar dute ikus-entzunezko komunikabideen alorrean gertatzen ari diren aldaketa teknologikoekiko. *Canal Vasco* delakoa ekimen interesgarria bada ere, beste arlo batzuetan oraindik ere atzeraturik eta ahul gabilta. Kanal tematikoek (euskaraz ondo ez dakitenentzako kanal espezifikoa, adibidez), *pay-per-view* eta kable eta lur-azaleko emisio digitalek euskara bezalako hizkuntza txikientzako dituzten abantailen inguruan behar bezalako gogoeta egin beharra dago.

- Herri gisa globalizazioari etekinak ateratzeko *Internet* sarea oso kontuan izango duen hezkuntza bultzatu beharko da; ahal den neurrian gizarteko sektore eta klase guztiak inplikatuz. Ezin da aiantzi, autore askok salatu duten bezala, *Internet* ekonomikoki egoera baikorrean dagoen jendearen mesedera-ko gertatzen ari dela mundu mailan (munduko biztanleen %97,6-ak ez du inoiz *Internet* erabili), eta hori gizarte-desoreken sortzaile gerta daitekeela.

Bestalde, interneterako edukiak edota orrialdeak ekoiztuko dituzten eta euskaraz aritzeko gaitasuna izango duten enpresen aldeko apustua egin behar da. Izan ere, ikus-entzunezko produktu propioak ekoizteko ahalmenak ahalbidetuko digu bakarrik norbait izatea globalizatzen ari den mundu honetan.

- Zineari dagokionez, kontuan izan behar da balore, pentsamolde eta ikuspuntu zehatzen (gehienetan ikuspuntu amerikarren) igorle hain garrantzitsua den esparru kultural hau kanpoko multinazionalen (Metro Goldwyn Mayer, Columbia, 20th Century Fox...) eskuetan gelditzeko arrisku handia dagoela eta, ondorioz, beharrezkoa dela zenbait erabaki estrategiko hartzea. Bada, euskal zine baten oinarri izango diren antzezle eskola gehiago sortu, teknikariak prestatu, filmak ekoizteko estudioak eraiki, eta filmen banaketa eta aurkezpena egiteko sare egokia antolatu beharra ikusten da.

- Bikoizketaren ikuspegitik, filmak euskaraz eskainiko dituzten zine-gela sarea sortu beharko da gutxienez, eta hasteko, hiriburuetan eta %60-tik gora euskaldun dituzten herrietan. Ez da aiantzi behar, zinemagintzaren inguruko industria sendo batek Euskal Herrian dauden telebisten ekoizpen propioa, zein gaur egun hain ahul dagoen euskarazko publizitatearen bidea erraztu eta bultzatuko lituzkeela.

- Eta hori dena euskararen erabilera ziurtatuz egin beharko da. Zentzu honetan, euskarak etorkizuna izango du esparru kultural gehienetan erdarazko ereduak nagusi izan ordez, euskarazkoen sarbidea ziurtatzen denean. Lortuz gero, euskal kultura eta euskara inolako arazorik gabe biziko dira mundu globalizatuan.

IV. ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA

- Amezaga, J. (1999-5-23): "EITB nazio eraikuntzan". *Egunkaria*
- Arana, E. (1999-6-1): "Haritik tiraka". *Egunkaria*.
- Azpillaga, P. (2000-5-6): "Euskal industria kulturalak eta globalizazioa". *Egunkaria*
- Azpillaga, P. O: "Euskal ikus-entzunezko eta multimedia sektore baterantz". *Egunkaria*
- Brunsvick, Y. eta Danzin, A. (1999): *Nacimiento de una civilización*. Ediciones Unesco, París.
- Castells, M. (1996-1997): *La era de la información*, 3 vols. Alianza, Madrid.

- Echeverria, J. (1999): *Los señores del aire: Telépolis y el Tercer Entorno*. Destino, Barcelona.
- Egunkaria (2000-7-26): "Bost tesi berri euskara automatizatzekeo". *Egunkaria*.
- Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Euskal Kultur Erakundea (1996): *Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta. Euskararen Jarraipena II*.
- Hale, K. (1992): "Endangered Languages" en *Language* nº 68-1, pags. 1-48.
- Jone, E. D. (1999-12-7): *Katalunia Hollywooden nagusikeriaren aurka*. Egunkaria
- Junyent, C. (1999): *La diversidad lingüística. Didáctica y recorrido de las lenguas del mundo*. Octaedro argitaletxea, Bartzelona.
- Junyent, C. (1993): *Las lenguas del mundo. Una introducción*. Octaedro, Bartzelona.
- Kraus, M. (1992): "The World's Languages in Crisis" en *Language* nº 68-1, pags. 4-10.
- Maffesoli, M. (1990): *El tiempo de las tribus*. Icaria, Bartzelona.
- McLuhan, M. (1990): *La aldea global: transformaciones en la vida y los medio de comunicación mundiales en el siglo XXI*. Sedisa, Bartzelona.
- Negroponte, N. (2000): *El mundo digital. Un futuro que ya ha llegado*. Ediciones B, Bartzelona.
- Toffler, A (1999): *La tercera ola. Ediciones*. Orbis (3ª edición), Bartzelona.
- Verdu, V. (1996): *El planeta americano*. Anagrama, Bartzelona
- Virilio, P. (1997): *El ciber mundo, política de lo peor*. Ediciones Cátedra, Madril.
- Zabaleta, I. (1999-7-20): "Telebista eta euskara, estrategia berriak". *Egunkaria*

Patxi Juaristi